

# EUSKARAREN ERABILPENA ARAUZKOTZEZKO OINARRIZKO LEGEA

## URTEBETEAREN BURUAN ZER?

### *Aurkezpena:*

Izenpuruak berak aditzera ematen duen bezala Azaroaren 24an bete da, *Euskararen Erabilpena arauzkotzezko Oinarrizko Legearen* lehen urtehurrena. Hori dela eta, ez zaizkigu gaizki etorriko euskarari eskainiak dizkiogun horrialdi hauetan, horretaz zertxobait hemen gogora ekartzea.

Euskal Herrian zehar itxaropen biziz itxaron izan zen Euskararen Lege hori. Egia esan, ez zituen zenbaiten gurariak eta esperantzak asetzen, baina bai zerbait baino gehiago egiteko bideak irekitzen.

*Euskararen erabilpena arauzkotzezko Oinarrizko Lege* hori, 1982.eko Azaroaren 26an onartu zuen Legebiltzarrak eta Abenduaren 16an eman zuen argitara Euskal Herriko A.ren Aldizkariak.

### *Jarrera desberdinak:*

Aurrera egin baino lehen, Legearen ikuspegi soziala ere edukitzeko, gogora ditzagun onartua izan zen egunetan agertu ziren eritzi desberdinak. Orokorki ondoak izan ziren:

- a) Legebiltzarrak, gehiengo handiz onartu izan zen.
- b) JEL/EE-koek aurrerakuntza handia zela eta txalo beroz hartu zuten, zenbait puntutan euren artean guztiz bat ez bazetozten ere.
- c) Madril-eko Gobernuak (Euskadiko PSOE-koek isilik zi-rela) Lege horren aurko errekurtsioa jaso zuen Konstituzio-Auzitegira, Lege hori, hainbatetan erdi-geldi utzirik.
- d) Talde politiko ez Instituzionalentzat, oso urria zen lege hori eta azken batetan Espainako Konstituzioaren kume.
- e) Zenbait euskalzalek, Lege ausartagoa nahi genuen, non-bait, hain egoera larrian ikusten genuen euskararen ge-roa eta.

Behar bada, halako adostasunik izan ez zuelako Lege horrek, nahiko isildua izan zen edo eta zokoratua.

Hala ere, Lege horrek badu garrantzirik ugari, zein eritzi batekoak zein bestekoak izan, euskararen alde ekiteko ahal-bide ederrak eskeintzen ditu eta. Urtebete igaron ondoren, ez-dabaidak urruti direla, beste modu batera hurbil gaitezke eta beste ikuspuntu batetatik azter dezakegu.

Hori dela eta, oso interesgarritzat jo dut, Lege horren laburpen orokorra orri hauetan eskeintzea, besterik ezean euskaldunok Erakunde Publikoei eska diezazkiegunak gogora ekartzeko baldin bada ere.

## **EUSKARAREN OINARRIZKO LEGEA**

(Azaroaren 24ko 10/1982 oinarrizko LEGEA,  
Euskararen erabilpena arauzkotzekoa)

### **SARRERA :**

«Konstituzioak eta Autonomia-Estatutoak Euskal Herriko Autonomia-Elkarteko Agintaritzaren esku uzten dute euskararen erabilpena zabaltzeko eta arauzkotzeko xedezko neurriak hartzea, euskara Euskal Herriaren Kultura-Ondarearen fun-

tsezko zati eta, gaztelaniarekin batean, Autonomia-Elkarteko hizkuntza ofizial denez.

» Helburua zera da: Euskara, gure Elkartearen nortasunaren erakusgarri nabarmenena eta behinena eta, ezagutzaren eta erabilkeraren bidez, gizabanakoak Elkartean erabat bertakotzeko bidea dela aitortzea.

» Euskara Euskal Herriaren berenezko hizkuntza eta gaztelarekin batean hizkuntza ofizial izateak ez die, inola ere, batagatik edo besteagatik hartaz baliatzen ez diren herritarren eskubideei kalterik ekarri behar, Euskal Herriko Autonomia-Estatutoaren 6garren Ataleko 3garrenak berariz dionez.

» Hizkuntzari Euskal Herriko herrikide guztien baterapide denaren aitortpena egin ondoren, euskal herritarrek hizkuntzaren alorrean dituzten eskubideak gure Lege-Antolapidetzaratu beharra dago eta, batipat, hizkuntza ofizial bietan jardudutzeko eskubidea, eta hizkuntzarekiko babesaren bermea, Euskal Herriak gordetzen duen kultura-ondare baten funtsezko zati denez.»

## AINTZIN-IDAHPURUA

*Lehenengo atala:*

— Euskararen erabilpena LEGE honen arabera egingo da.

*2garren atala:*

— Euskal Herriak euskara du berenezko hizkuntza.

*3garren atala:*

— Euskal Herriko Autonomia-Elkartearen hizkuntza ofizialak euskara eta gaztelania dira.

*4garren atala:*

— Euskal Herriko Autonomia-Elkartean hizkuntzagatik inork bereizkeriarik izan ez dezan, Herri-Agintesilek ardura izan eta behar daitezen neurriak hartuko dituzte.

## LEHENENGO IDAZPURUA

(Herritarren eta herri-agintaritzaren eskubide eta eginbeharrak hizkuntzaren alorrean)

### *5garren atala:*

- 1) — Euskal Herritar guztiek dute hizkuntza ofizialak hitzez nahiz idatziz ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea.
- 2) — Funtsezko hizkuntza-eskubide hauek aitortzen dira:
  - a) Arduralaritzarekin eta Autonomia-Elkartean kokatutako edozein Ihardutze-Sail edo Erakunderekin harremanak hitzez eta/edo idatziz euskaraz edo gaztelaniaz izateko eskubidea.
  - b) Ikasketak bi hizkuntza ofizialetan egiteko eskubidea.
  - c) Aldizkariak, irrati eta telebista eta beste adierazpideetako emankizunak euskaraz jasotzeko eskubidea.
  - d) Lanbidezko, lanezko, politikazko eta sindikaritzazko ekintzetan euskaraz aritzeko eskubidea.
  - e) Edozein bilkuratan euskaraz egiteko eskubidea.
- 3) — Eskubide hauek eraginkorrak eta benetakoak izan daitezzen, herri-agintesailek beroien erabilpena bermatuko dute.

## BIGARREN IDAZPURUA

(Herri-agintaritzaren ihardunez)

### *6garren atala:*

— Edonork euskara gaztelaniaren pare-parean erabiltzeko eskubidea duela Atministraziomaila osoan esaten du.

Horretarako Agintariek medio egokiak ezarriko dituzte.

### *7garren atala:*

- 1) — Atministrazio alorrean hartzen diren idazkiak eta abar daudeneko hizkuntzan inskribatu behar direla Erregistroan dio.
- 2) — Beste hainbeste egitera bultzatuko dira publikoak ez diren erakundeak ere.

Horretarako itzulpen zerbitzuak eskeiniko dira.

### *8garren atala:*

- 1) — Euskal Herriko Autonomia-Elkartean, Herri agintaritzaren erabaki ofizialak bi hizkuntzetan egongo dira.
- 2) — Erakunde Publikoek esku hartzen duten egintza guztietan, interesatuek agirian besterik esaten ez badute, bi hizkuntzak erabiliko dira.
- 3) — Hala ere toki berezietan Erakunde Publikoek euskara bakarrik erabili ahal izango dute (Madrid-en ukatua).

### *9garren atala:*

- 1) — Epailaritzarekiko harremanetan herritar guztiek aukeratutako hizkuntza ofizialaz baliatu ahal izango dute, inolako itzulpenik ezin eska dakiekeela.
- 2) — Euskaraz aurkezten diren idazkiek balio ofiziala izango dute.
- 3) — Alor honetan euskararen erabilera bultzatzeko Eusko Jaurlaritzak beharrezko bideak ezarriko ditu.

### *10garren atala:*

- 1) — Geografiazko tokiak izendatzea bi hizkuntzetan egingo da, hitzen jatorria errespetatuz eta grafia ofiziala erabiliz (Dударик sortzen denean Euskaltzaindiari galdetuko zaio).
- 2) — Trafikoko seinaleak eta iragarpenak bi hizkuntzetan egongo dira, Nazioarteko arauak eta ulergarritasuna eta segurantza kontutan hartuz.
- 3) — Izen horiek oso ezberdinak izanez gero, biek ofizialtzat joko dira.

*11garren atala:*

- Euskal Herritik abiatzen diren herri-garraiozko zerbitzu guztietan, jendearentzako irarkiak, mezuak eta adierazpenak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira.

*12garren atala:*

- Eusko Jaurlaritzak araupetuko ditu bi hizkuntzen arteko zinpeko itzultzaile-tituloa lortzeko eta emateko baldintzak.
- Halaber, itzultzaile-zerbitzu ofiziala sortaraziko du, itzulpenen zehaztasuna eta legezko baliokidetasuna bermatzeko.

*13garren atala:*

- Euskal Herriko Autonomia-Elkarteko herri-agintaritzak erabili beharreko iragarki edo itxura-eredu ofizial guztiek bi hizkuntzetan egon beharko dute.

*14garren atala:*

- 1) — Lege honen 6garren atalean aitortzen diren eskubi-deak egiteratu daitezten, herri-agintariek Euskal Herriko Autonomia-Elkarteko Herri-Arduralaritzari atxikitako lanariak arian-arian euskalduntzeko xedezko neurriak hartuko dituzte.
- 2) — Herri-agintariek erabakiko dute zein lantokitarako izango den beharrezko bi hizkuntzak jakitea.
- 3) — Beste lanpostuetarako ere euskara baloratua izango da, lan bakoitzerako lanbide-maila zehaztatuz.

## **BIGARREN ATALBURUA**

(Euskararen irakaskuntzango erabilpena)

*15garren atala:*

- Ikasle guztiei, hezkuntza-maila berezitan, irakaskuntza euskaraz eta gaztelaniaz hartzeko eskubidea aitortzen zaie.

Horretarako neurriak hartuko dira.

*16garren atala:*

- 1) — Irakaskuntzarako aukeratu ez den hizkuntza ofizialaren ikastea (nahiz euskara nahiz erdara) nahitaezkoa izango da Unibertsitate aurreko urteetan, hots beharrezko irakaskuntzatzat jotzen diren urteetan.
- 2) — Lurralde bakoitzean zein eredu erabili, Eusko Jaurlaritzak gurasoei eta galdetu ondoren erabakiko du.
- 3) — Herri-diru laguntza jasotzen duten ikastetxeek euskara eta erdara irakatsiko dituzte.

*17garren atala:*

- Eusko Jaurlaritzak, ikasle guztiek, nahitaezko ikasketak urteen buruan euskara eta erdara jakitea lortueraziko dute, horretarako inguruko eta administrazio giroa euskaldunduz.

*18garren atala:*

- Irakasketa-egitamuak 15., 16., 17. atalera jarritako helburuei egotituko zaizkie.

*19garren atala:*

- Irakasle Eskoletan irakasle elebidun ongi hornituak ataratzeko bideak ezarriko dira.

*20garren atala:*

- 1) — Irakaskuntza euskaldun egiteko, irakaslegoa euskalduntzeko bide egokiak ezarriko dira.
- 2) — 15. eta 16. ataletan esaten dena beteerazteko, euskara jakitea nahitaezkoa izango duten lantoki edo irakaskuntza-gelak zehaztuko dira (Gobernuak ukatua).

*21garren atala:*

- Euskal Herritik kanpo ikasten hasi direnak edo eta eguneroko bizitokia kanpo dutenak ez dute euskara nahitaez ikasi beharrik izango. Euskara ikastea barikatu ahal izango zaie.

## HIRUGARREN ATALBURUA

(Euskararen gizarte-adierazpideetango erabilkera)

### 22garren atala:

— Edonork gizarte-adierazpideak euskaraz eta erdaraz jasotzeko eskubidea du.

Hori dela eta, ahaleginak egingo dira, egunetik egunera euskarari Komunikabideetan toki ugariagoa emateko.

### 23garren atala:

— Jaurlaritzak euskarari lehentasuna emango dion dekretu bat gertatuko du.

### 24garren atala:

— Jaurlaritzak Espaniako Irrati-Telebistan euskarari leku gehiago emateko bideak bultzatuko ditu, Lurraldeko berezko hizkuntzari dagokionez.

### 25garren atala:

— Jaurlaritzak LEGE honen 22. atala betertzeko arlo guztietan euskara bultzateko bideak ezarriko ditu. Hala nola:

- Irratian
- Egunkari eta aldizkarietan
- Zineman
- Antzerki eta ikuskizunetan
- Irudiaren eta hotsaren iragarpideetan

Horretarako beharrezko diren titulazioak lortzeko medioak ere ezarriko dira.

## LAUGARREN ATALBURUA

(Euskararen gizarte-erabilpena eta erakunde alorreko beste alderdi batzuk)

### 26garren atala:

— Jaurlaritzak publizitatean euskara erabiltzea bultzatuko du.

*27garren atala:*

- Euskara giroari indar emateko, era guztietako iragar-kietan (merkataritzazko, atsedenezko, kulturazko eta bazkunezkoetan) euskara erabiltzea bultzatuko du.

*28garren atala:*

- Jaurlaritzak adinekoei euskara irakastea eta euskal-dunak alfabetatzea suztatuko du.

*29garren atala:*

- Euskararen normalizazioa bideratzeko eta LEGE hau martxan jartzeko Erakunde Berezi bat sortuko da.

## **BOSKARREN ATALBURUA**

(Euskararen idatzitako hizkuntza ofizial denezko erabilkera)

*30garren atala:*

- «Jaurlaritza, Euskal Herriko Autonomia-Elkartearen lur-eremu osorako idatzizko hizkuntza ofizial denez, euskararen batasun eta arauzkotasunaz arduratuko da, Euskal Herriaren kultura ondarearen funtsezko zati direnez euskalkiei bizi diren tokietan zor zaien begirunearen kaltetan gabe.»

## **ERABAKI GEHIGARRIAK**

1. a) Jaurlaritzak euskara alorretan lanean ari diren zenbait Erakundekin harremanak eduki ahal izango ditu.
2. a) Aldian aldi berrikusiko den euskararen mapa sozio-linguistikoa egingo du.
3. a) Jaurlaritzak, arian arian, hemen aipaten diren zenbakietako (6, 8, 11, 13, 14) urratsak emango ditu euskara Atministralgoan sartuz joateko.

## **ALDIBATEKO ERABAKIAK**

1. a) Orain arte martxan izan diren plangintzek, hasitako hizkuntzan jarraituko dute.

2. a) LEGE hau beteraztea, Konstituzioko edo Estatutoko gaietan ez denetan, Jaurlaritzaren esku izango da, atalen batzuk egiteratzea aldi baterako barkatu ahal izango duela.

### **BALIOGABETZE-ERABAKIA**

- Alor honetako aurreko erabaki guztiak baliogabetuak geratzen dira.

### **AKEN ERABAKIA**

- LEGE hau beteerazteko bideak hartzea Jaurlaritzaren esku geratzen da eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu dedin egunaren biharamonean jarriko da indarrean.

### **LEGEAREN AZTERKETA**

Eusko Legebiltzarraren *Euskararen erabilpena arauzkatzeko Oinarrizko Legea* aurkeztu ondoren, bertan aipatzen diren oinarrizko puntuak aztertzerako jo ezkerorako, bi bide-adar hartzen dituela ikus dezakegu:

- a) Euskaldun bakarrei hizkuntzaren erabilketa alorrean onartzen zaizkien eskubideen zerrendaketa egitera.
- b) Administrazioak, euskaldunok bakarka eta taldezka ditugun hizkuntz eskubideak onarterazteko dituen betebeharrak, aditzera ematera.

Eta guztiau, Konstituzioak eta Autonomi Estatutoak teorikoki onartutako bakarreko eta taldezkako bardintasunean oinarritutako direla.

#### **A) Euskaldunon bakarko eta taldezkako hizkuntz eskubideak**

1. a) Edonork Euskal Herriko Autonomia Elkartearen hizkuntzaren kausaz diskriminatua ez izateko eskubidea du. (4. Art.)
2. a) Euskal Herritar guztiak dute Hizkuntza Ofizialak hitzez eta idatziz ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea.
3. a) Eskubide hauek benetan betetzeak, honakoak eskatzen ditu:

- a) Ardularitzarekin harremanak hitzez eta/edo idatziz euskaraz eta gaztelaniaz izateko eskubidea. (5,2a. Art. eta 6. Art.)
- b) Aldizkariak, Irrati eta Telebista eta beste adierazpideetako emankizunaz euskara jasotzeko eskubidea. (5,2c. Art. eta 22, 23, 24, 25. Art.)
- c) Edozein bilkuretan euskaraz egiteko eskubidea. (5e. Art.)
- d) Erakunde publikoek eskubide hauen alde jarri eta benetan bizitzan beteerazteko bideak jartzeko eskubidea. (5,3. Art.)
- e) Lanbidezko, lanezko, politikazko eta sindikaritzazko ekintzetan euskaraz aritzeko eskubidea. (5,2d. Artikulua)
- f) «Epaillaritzarekingo harremanetan, herritar guztiek aukerako hizkuntza ofizialaz baliatu ahal izango dute, inolako itzulpenik ezin eska dakiekeela.» (9,1. Art.)
- g) «Euskaraz aurkeztutako idazki eta agiriak, eta bai epailaritzza-ihardunak, balio osozkoak eta eragite-indarrezkoak izango dira.» (9,2. Art.)
- h) Ikasle guztiei, hezkuntza-maila berezitan, irakaskuntza euskaraz eta gaztelaniaz hartzeko eskubidea aitortzen zaie. (15. Art.)

## **B) Herri Administrazioaren betebeharrak**

- 1. a) Herritarrei aukeratzen duten hizkuntza ofizialean herrera egiteko beharrezko neurriak hartzea. (6. Art.)
- 2. a) Herri-erroldegegian agiri/paperak aurkezten diren hizkuntza ofizialean ezarri beharra. (7. Art.)
- 3. a) Egiatzen agiriak eta frogagiriak bi hizkuntzatan jartzeko (7,1. Art.)
- 4. a) Edozein aginte-araupide edo erabaki ofizialek bi hizkuntzatan idatzirik egon beharko du. (8. Art.)
- 5. a) Herri-agintariek eskuhartu dezateneko egintza guztiak, eta bai Administrazioako mezu eta adierazpenak, bi hizkuntzatan egon beharko dute. (8. Art.)

Legeak ahalbide ugariak eskeintzen ditu eta indar handiak euskararen zerbitzuan jartzea eskatzen. Euskararen berreskuratzeak izugarritzko dirutza eskatuko dio Euskal Herriari, baina baita bere nortasuna sendotzen eta Herri izatea finkatzen lagundu ere.

Euskararen Legea, hor dugu aurrean, baina paper hutsa izango dugu betetzen saiatzen ez bagara. Une honetan Euskal Herriko Erakunde gehienak Legez kanpo ari dira jokatzeko. Aitzakiak ugari eta gogoeza eta alperkeria nabari!

Hala ere ezin zama osoa Agintarien lepora bota, euskararen iraupena guztiona dugu eta. Hori dela eta ongi etorriak euskararen alde bazterretan sortu ohi diren iniziatiba guztiak. Noiz hasiko ote gara *Euskaraz eta Kitto* bizitzan betetzen?

Hemengo, horko eta hango ahaleginak eta bost beharko ditugu, euskararen atzerakada geratu eta benetan Euskal Herri erdaldundu hau, elebidun egiten hasteko.

---

### **Eranskina :**

Hasiera batetan beste lantxo bat gertatu nahi nuen, eskuarteetan ditudan zenbait datu bildurik. Baina ezin astirik atera, azken hilabeteok, euskarako liburu bat (*Sinonimoen Hiztegia*) gertatzen ibili gara talde bat eta.

Hala ere, hain interesgarriak izanik, ondoko datuak eskaini nahi dizkizuet, euskarak Bizkaiko udaletan zehar duen egoera hurbiletik ikusteko aukera izan dezazuten. Datu hauek *Euskararen Borroka* (JAKIN, 1983) liburuaren osagarri dituzue eta 1981eko Biztanleen Udal-errolatik jasoak izan dira.

*Euskaldunok lozorrotik iratzartzeko deihadar sendoa izango ditugulakotan ematen dizkizuet aditzera.*

horretarako Herri-Erakunde bat sorteraziz. Horren-  
tzako araupideak Eusko Legibiltzarraren Lege baten  
bidez jarriko dira.» (28. Art.)

### ONDORIOAK :

Euskararen Legea aztertu eta aurreko guzti hauek biltzen ibili naizenean, Euskal Herritik urruti, beste mundu desberdin batetan edo murgildurik ikusi dut neure burua. Benetan, Legeak dioena gure inguruetako egoerarekin konparatzen badugu, ezer gutxi egin dugula aitortu behar.

Noiz hasiko ete gara guzti hori egitan betetzen? Euskara hain egoera larrian ikusirik zenbait galdera egiten dizkiot nire buruari. Hemen dituzue, guztion hausnarbiderako.

- 1) Euskaldunok ba ote dugu gure gizartean euskaraz bizitzeko biderik? Nabari ote da Euskal Herrian, *Euskaldun Herrian* bizi garenik?
- 2) Aipaturiko eskubideak hala badira ere, zenbateraino egin ditzakegu eguneroko harremanak (Administrazioarekin ditugun harremanak eta...) euskaraz?
- 3) Gure Lurraldeetako Erakundeek noiz hartuko dute, ekonomian eta egiten den bezala, hizkuntz-politika neurtua, aurrera eramateko beharrezko diren diru-inbertsioak eta eginez?
- 4) Noiz euskaldunduko dugu Administrazioa? Ala euskara, orain arte zenbait kasutan bezala, gerora ere testimonial hutsa izango ote?
- 5) Irakaskuntzan, gaur egunetan daramagun bidetik, A/B ereduak jarraituz euskaldunduko dira gero, benetan gure gaztetxoak *nahitaezko ikastaldian* zehar? Eta ezetz uste badugu, zertarako ez aldatu bideak?
- 6) Nolako pausoak eman dira, herri-giroa euskalduntzeko, salerosketetan euskaldunon eskubideak bete erazteko, eta abarretarako?

Hauek eta beste hainbat eta hainbat galdera gogora ditzakegu. Hala ere aurrera begiratu beharra dugunez, ezin ukatu azken urteotan hainbat bide jarri direla martxan.

Legeak ahalbide ugariak eskeintzen ditu eta indar handiak euskararen zerbitzuan jartzea eskatzen. Euskararen berreskuratzeak izugarritzko dirutza eskatuko dio Euskal Herriari, baina baita bere nortasuna sendotzen eta Herri izatea finkatzen lagundu ere.

Euskararen Legea, hor dugu aurrean, baina paper hutsa izango dugu betetzen saiatzen ez bagara. Une honetan Euskal Herriko Erakunde gehienak Legez kanpo ari dira jokatzeko. Aitzakiak ugari eta gogoeza eta alperkeria nabari!

Hala ere ezin zama osoa Agintarien lepora bota, euskararen iraupena guztiona dugu eta. Hori dela eta ongi etorriak euskararen alde bazterretan sortu ohi diren iniziatiba guztiak. Noiz hasiko ote gara *Euskaraz eta Kitto* bizitzan betetzen?

Hemengo, horko eta hango ahaleginak eta bost beharko ditugu, euskararen atzerakada geratu eta benetan Euskal Herri erdaldundu hau, elebidun egiten hasteko.

---

### **Eranskina :**

Hasiera batetan beste lantxo bat gertatu nahi nuen, eskuarteetan ditudan zenbait datu bildurik. Baina ezin astirik atera, azken hilabeteok, euskarako liburu bat (*Sinonimoen Hiztegia*) gertatzen ibili gara talde bat eta.

Hala ere, hain interesgarriak izanik, ondoko datuak eskaini nahi dizkizuet, euskarak Bizkaiko udaletan zehar duen egoera hurbiletik ikusteko aukera izan dezazuten. Datu hauek *Euskararen Borroka* (JAKIN, 1983) liburuaren osagarri dituzue eta 1981eko Biztanleen Udal-errolatik jasoak izan dira.

*Euskaldunok lozorrotik iratzartzeko deihadar sendoa izango ditugulakotan ematen dizkizuet aditzera.*